


**BEASAIN-ZUMARRAGAKO EREMU FUNTZIONALEKO  
LURRALDE PLAN PARTZIALA BERRIKUSTEAREN DOKUMENTUA  
(GOIERRI)**



**INFORMAZIO-SINTESIAREN DOKUMENTUA ETA  
DIAGNOSTIKORAKO LEHEN HURBILKETA**

**EGIKARITZE-SINTESIA**

2023ko maiatza



## ERREDAKZIO-TALDEA:

### ZUZENDARITZA ETA IDAZKETA:

Santiago Peñalba Garmendia, Arkitektoa.

Iñigo Peñalba Arribas, Arkitekto Doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateak eraikitako ondarearen zaharberritze eta kudeaketa masterra.

Mikel Iriondo Iturrioz, Abokatua.

### KOLABORATZAILEAK:

Carmen Segurola Lázaro, Geografia eta Historian lizentziatua, geografoa, ingurumen eta lurralde ikasketetan masterra Deustuko Unibertsitatean.

Reyes Monfort Halle, Biologoa.

Igor Martín Molina, Bide, ubide eta portuetako ingeniaria (Endara Ingenieros Asociados, S.L.)

Maria Jose Fernandez Calonge, Delineazioa eta edizioa.

### IKUSKAPEN TEKNIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia

Mikel Uriol Zarauz Lurralde Plangintzako Zerbitzuko arkitektoa.  
Iñigo Insausti Urrestarazu Lurralde Plangintzako Zerbitzuko teknikari juridikoa.

**AURKIBIDEA**

Orrialdea

|       |   |    |
|-------|---|----|
| I     | Sarrera. ....   | 1  |
| II    | DIAGNOSTIKORAKO lehen hurbilketa. ....                                    | 2  |
| III.- | Prospektiba: 2040rako (edo 2050) agertoki posibleetara hurbilketa .....   | 11 |
| IV.-  | LPP berrikustearen komenigarritasunaren eta aukeraren justifikazioa. .... | 15 |
| V.-   | Plana izapidetzea eta herritarrek parte hartzeko prozesua. ....           | 15 |



## I Sarrera

Goierriko Eremu Funtzionalak Lurralde Plan Partzial bat du (aurrerantzean LPP) 2009. urtean behin betiko onartu zena (534/2009 Dekretua, irailaren 29koa) eta berrikustea proposatu dena.

Horrela, dokumentu honen helburua da Goierriko egoera azaltzea eta jarraitu beharreko prozesua bideratuko duen eztabaida eta parte-hartze prozesua ahalbidetzeko oinarri izango den diagnostiko baterako lehen hurbilketa egitea. Informazio-laburpenaren egikaritze-laburpena eta horretarako egindako diagnostikorako lehen hurbilketa bat da.

Goierriko eremu funtzionala ondorengo 22 udalerriek eta horien euskarri fisikoa osatzen duten beste eremu batzuek osatzen dute. Eremu Funtzionalan bizi den biztanleria honako hau da eskura dagoen azken informazio ofizialaren arabera (2022).

| <b>GOIERRIKO BIZTANLERIA – 2022ko urtarrilaren 1eko biztanle-eroldaren berrikuspena</b> |               |              |
|---|---------------|--------------|
| Udalerria   | Biztanleak    | %            |
| ALTZAGA   | 178           | 0,25         |
| ARAMA   | 192           | 0,27         |
| ATAUN   | 1.660         | 2,37         |
| <b>BEASAIN</b>  | <b>13.877</b> | <b>19,84</b> |
| EZKIO-ITSASO  | 609           | 0,87         |
| GABIRIA   | 503           | 0,72         |
| GAINTZA   | 128           | 0,18         |
| IDIAZABAL   | 2.271         | 3,25         |
| ITSASONDO   | 643           | 0,92         |
| LAZKAO  | 5.962         | 8,52         |
| <b>LEGAZPI</b>  | <b>8.337</b>  | <b>11,92</b> |
| LEGORRETA   | 1.432         | 2,05         |
| MUTILOA   | 259           | 0,37         |
| OLABERRIA   | 914           | 1,31         |
| <b>ORDIZIA</b>  | <b>10.424</b> | <b>14,90</b> |
| ORMAIZTEGI  | 1.242         | 1,78         |
| SEGURA  | 1.469         | 2,10         |
| <b>URRETXU</b>  | <b>6.738</b>  | <b>9,63</b>  |
| ZALDIBIA  | 1.673         | 2,39         |
| ZEGAMA  | 1.538         | 2,20         |
| ZERAIN  | 276           | 0,39         |
| <b>ZUMARRAGA</b>  | <b>9.636</b>  | <b>13,77</b> |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>69.961</b> | <b>100</b>   |

Lurraldeak 430 km<sup>2</sup> ditu guztira eta hektareako 1,63 biztanleko dentsitatea ematen du.

Aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren arabera, LPParen berrikuspenean, jasangarritasun-printzipioaren arabera jokatu behar da eta klima-aldaketaren erronkari ere erantzun behar zaio. Trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra ahalbidetuz egin behar da hori. Testuinguru horretan, planak erantzuna eman behar dio Goierri behar duen bilakaerari, hau da, eskualdeko biztanle eta bisitarien premiei, pertsonen, herritarren premiei, egungo biztanle nahiz etorkizuneko belaunaldietako biztanleen premiei. Eta hori, memoria eta ingurunea ezagutuz eta aintzat hartuz egin behar da, behar diren gizarte-oreka ahalbidetuz eta erronka demografikoari erantzuna emanaz.

Planak, gainera, egungo gizarteak eskatzen dituen ikuspegiak txertatu beharko ditu, besteak beste, osasuna, irisgarritasuna, gizarteratzea, generoa, lurzoruari baliabide mugatu gisa balioa ematea, hiri-berroneratzea, mugikortasun jasangarria, azpiegitura berdea, paisaia, parte-hartzea eta gobernantza ona.

Oria eta Urola ibaiek eta horien adarrek modelatu dute lurraldea. Lurrak, haranetatik hasi eta Aizkorri eta Aralar mendiguneetako kotarik altuenetara iristen dira, ia 1.500 metroko altuerarekin. Landazabaleko paisaia da nagusi. Bi inguruneek (Aizkorri eta Aralar) balio handia dute, dagozkien babes-tresnetan aitortutakoa.

## II.- DIAGNOSTIKORAKO lehen hurbilketa

Egindako landa-lanak, lekura eta bertan jarduten duten aditu eta eragileetara egindako lehen hurbilketak eta egindako informazio-laburpenak diagnostiko baterako lehen hurbilketaren laburpen hau egitea ahalbidetzen dute.

Goierri jauzi kualitatibo nabarmena egin duen arren indarreko LPP gauzatu den urteetan, bertan aurreikusitako esku-hartze estrategiko asko ez dira gauzatu. Errealitate horrek, esku-hartze estrategiko horiek berriz aztertzea eta konponbide berriak bilatzea ahalbidetzen du, prozesuan zehar, ahal den heinean, aukeratu beharreko soluzioak adostu ahal izateko.

Aipatzekoak dira, besteak beste, Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren garapena, San Juan (Ordizia) eta Loinaz (Beasain) artean aurreikusitako trenbide-trazadura berria, Beasain-Zumarraga korridoreko garapenak, Euskal Trenbide Sare Berriaren ezarpena, Legazpiko eta Ordiziako San Bartolomeko bizitegi-lurzoruen garapenak eta ekonomia-jardueren garapenak, bereziki Legazpin. Azpimarratzekoa da hori horrela izan dela, behar diren konpromiso ekonomikoei eta zenbait kasutan eskatzen ziren bateragarritasun-planei dagokienez udalaz gaindiko eskalako kide anitzeko erabakiak falta izanaren ondorioz.

Azpimarratu egin behar da koiunturak, orain arte, ez duela lagundu behar ziren erabakiak hartzen. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarea ezartzeko prozesu luzeak eta Nafarroarekin lotzeari buruz eman beharreko soluzioaren inguruko ziurgabetasunak ez dute panorama garbirik eskaintzen eta, hala ere, horri buruzko erabakiak hartzeko orduan ahal den neurrian sakondu beharko da. Horren baitan dago, hein handi batean, Goierriren etorkizuna.

Bestalde, azpimarratzekoa da ia eremu funtzional osora zabaldu direla ingurune fisikoa babesteko proposamenak eta herriguneak eta hiriguneak birgaitzeko eta berrurbanizatzeko operazioak, mugikortasuna hobetzeko eta mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua egitekoak, ekipamenduak ezartzekoak eta, oro har, hirigunea birkalifikatzekoak. Hala ere, dinamika erregresiboa nabaritu da Urola Garaian eta hazkundera Eremu Funtzionalaren gainerakon.

Hala, BOL (Beasain-Ordizia-Lazkao) hiri-konurbazioko biztanleria % 6 hazi da 2009az geroztik eta ZUL (Zumarraga-Urretxu-Legazpi) hiri-konurbaziokoa, aldiz, -% 3,5 inguru murriztu da. Bestalde, azken horretan zaharkituta dagoen eta garapen berrietarako egokia den lurzoru artifizializatu gehiago dago bestean baino; hain zuzen ere, Urola Garaian (Ezkiio-Itsaso) dago ETSBren plataforma berria, oraindik kokapen zehatza erabaki gabe duena eta, egokitzat joz gero, garapen berriak hartzeko lurzoru egokiak izan ditzakeena. Aribidean dauden ekintzek eta abian jarritako prozesuan ikusi den guztiak oreka egokia eta lurralde-integrazio egokia ekarriko duten soluzioak ekarri beharko dituzte.

Arestian azaldutako guztiaren ondorioz, biztanleriaren hazkunde globala % 1,54koa izan da 2009az geroztik. Hazkunde hori kanpoko immigrazioak eragin du, jaiotza-tasaren jaitziera eta barne-emigrazioa konpentsatuz. Hala ere, egoera berri bat sortu da, biztanleria zahartzea eta bizitza luzeagoa izatea ekarri dituena.

Testuinguru horretan, biztanleria aktiboak gora egin du, aurrerantzean gerta daitekeen guztia alde batera utzi gabe, eta Goierriin 33.704 enplegu zeuden 2022an, hau da, Eremu Funtzionalan bizi ziren aktibo okupatuen % 8,5 gehiago.

Industria-sektoreak duen garrantzia nabarmendu behar da, hain zuzen ere, Goierriko enpleguaren % 35 hartzen baitu, Gipuzkoan % 13 hartzen duen bitartean. Azpimarratzekoa da, halaber, eremu funtzionaleko irisgarritasun- eta mugikortasun-baldintzek balorazio ona dutela. Azkeneko bi datu horiek kontuan izan beharreko aktibo esanguratsua dira.

Goierriko lurralde-ereduak azken 100 urteetan bilakaera nabarmena izan badu ere, nabarmentzekoa da asentamendu-sistema azken urte hauetan sendotu egin dela. Bi konurbazioak (BOL eta ZUL) hazi egin direla ikusten da, eta baita tamaina txikiagoko udalerrietako hiriguneak ere. Udalerrri txikiago horiek biztanleria erakarri dute landamunduan txertatzeko eskaintzari eta horietan eskaini den etxebizitza-tipologiari esker. Esan beharra dago, tamaina ertaineko hiriguneak mantendu eta berritu egin direla ere.

Ingurune fisikoa, industria handien ezarpenak eta haranen okupazioak jasan dituzten eraginak gorabehera, haren hedaduraren % 90ean baino gehiagotan dago finkapenik eta azpiegiturarik gabe, ibilguak hobetzeko bultzatu beharreko ekintzak alde batera utzi gabe, batzuk aribidean daudenak. Paisaia eraldatu egin da eta eraldatzen jarraituko da: garai bateko basoek gaur egungo baso eta larreak ekarri zituzten. Bestalde, Goierriin babes berezia behar duten lurzoruen hedadurak azaleraren herena hartzen du (Enirio-Aralar, Aitzkorri, Oriako eta Urolako ibilguak, etab.), baina korridore ekologikoen konfigurazioa hobetzeko aukera ikusten da, eta horrekin eremu funtzionalaren % 50 gainditzea aurreikusten da.

Hala, ingurunean egiten den esku-hartzeari ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo zaio planari dagokionez eta, hala badagokio, nekazaritza-ebaluazioa egingo da, eta dauden arriskuen ebaluazioa: lehorteak, bero-boladak, uholdeak, baso-suteak, arrisku geologikoak, higadura-arriskuak eta abar. Bereziki, ur-hornidura bermatzeko behar diren neurriak hartuko dira kontuan.

Esparru horretan, LPPan formulatuko den lurralde-eredu berriak hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta -berritzea ahalbidetuko ditu. Horretarako, indarreko LPPan planteatuta dagoen bezala, Eremu Funtzionaleko bi buruak indartzea birformulatu beharko da eta, gainera, Estandako korridoreari buruzko erabaki egokiak hartu beharko dira, nahiz eta, a priori, bertan egin beharreko ekintzek Ezkio-ltsasoko ETSBren plataformako esku-hartzearen subsidiarioak izan beharko luketela adierazten den.

Lehen hurbilketa hori Urola Garaiaren aldeko diskriminazio positiboa bultzatzeko aukera adieraziz osatuko da, lurraldea berrerekatzea eta identitate globala indartzea eragingo duena bi arroa identifikatuz (Urola eta Oria). Ekintza horrekin batera, aldaketa paraleloak egin beharko dira gobernantzan.

Horretarako, LPPk hartu beharreko erabakiak hartu beharko ditu, batez ere etxebizitzaren kuantifikazioari dagokionez, LALean ezarritakoaren arabera eta LAGetan jarraian aipatuko denari buruzko zehaztapenetan ikusitakoaren arabera.

Goierriko Eremu Funtzionalean bi aldaketa berezi gertatu dira jarraian: batetik, BOL konurbazioko biztanleriak ZUL konurbaziokoa gainditu du eta, bestetik, BOL azken hamarkadan hazi egin den bitartean, ZUL konurbazioak datu sozioekonomiko erregresiboak izan ditu. Horrek guztiak aztertutako aldagai guztietan ikusten diren lurralde horietako bakoitzaren dinamismo desberdin bati erantzuten dio. Hala ere, egokitzat jotzen bada eta hartu beharreko neurriak hartzen badira, etorkizunean joera aldatuko dela iragarri daiteke. Horren ondorioz, LPPk, bere eskumenak kontuan hartuta, neurri zehatzak planteatu beharko ditu, diskriminazio positiboa eragingo dutenak, ikuspegi orokor batetik, bizitegi-kuantifikaziorako LAGetan zehazten denarekin kontrajarrita, ikusitako joerak finkatu egingo direla soilik kontuan hartuta.

Arestian esandako guztia argitze aldera, honako hau adierazten da: LAGen idazketaren testuinguruan eta gai horri buruz berariaz xedatutakoaren arabera, ondorengo taulan ondorioztatzen den bezala, antzeko tamainako udalerriei, esaterako, Ordizia eta Zumarraga modukoei (Eustaten 2016ko datuen arabera, 4.700 etxebizitza inguruko parkea zuten biek eta 10.000 biztanle inguru) 662 eta 470 etxebizitzako balizko hazkundera esleitu zaie hurrenez hurren. Horrek esan nahi du Ordiziari Zumarragari baino % 40 gehiago esleitu zaizkiola.

Are eta adierazgarriagoa da Lazkao eta Legazpi udalerriei esleitutako kuantifikazio maximoaren aldeko konparazioa. Legazpi Lazkaok baino % 67 etxebizitza gehiago izan arren, LAGek 577 etxebizitzako kuantifikazio maximoa esleitu diote Lazkaori eta 417 etxebizitzakoa Legazpiri, hau da, % 38 gutxiago.



Hori dela eta, hausnarketa egin eta erabaki egokiak hartu beharko dira, lurralde-ereduan irismen berezia izango dutenak ingurumenari eta etxebizitza-premiei dagokienez aukeratu beharreko soluzioetan eta ekonomia-jarduera, zuzkidura eta azpiegiturei dagokienez.

| <b>LAG-EN KUANTIFIKAZIO MAXIMOA 2029RAKO GOIERRIKO UDALERRIETARAKO</b><br>2018-2026 ALDIARI DAGOKIONEZ |  |                                  |
|--|--|----------------------------------|
| Udalerria  | etxebizitza-kop.<br>2016. urtean<br>(EUSTAT) | Bizitegi-<br>edukiera<br>maximoa |
| ALTZAGA  | 71   | 36                               |
| ARAMA  | 83   | 42                               |
| ATAUN  | 892  | 161                              |
| BEASAIN  | 6.374  | 1.435                            |
| EZKIO-ITSASO   | 342  | 92                               |
| GABIRIA  | 245  | 82                               |
| GAINTZA  | 79   | 8                                |
| IDIAZABAL  | 1.290  | 321                              |
| ITSASONDO  | 330  | 62                               |
| LAZKAO   | 2.489  | 577                              |
| LEGAZPI  | 4.166  | 417                              |
| LEGORRETA  | 710  | 126                              |
| MUTILOA  | 153  | 77                               |
| OLABERRIA  | 552  | 55                               |
| ORDIZIA  | 4.720  | 662                              |
| ORMAIZTEGI   | 620  | 150                              |
| SEGURA   | 719  | 227                              |
| URRETXU  | 3.025  | 690                              |
| ZALDIBIA   | 882  | 97                               |
| ZEGAMA   | 837  | 196                              |
| ZERAIN   | 154  | 33                               |
| ZUMARRAGA  | 4.704  | 470                              |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>33.437</b>                                | <b>6.016</b>                     |

Beraz, hasiera-hasieratik landu beharreko oinarrizko arazoa da.

Testuinguru horretan adierazi behar da, adierazi den bezala, Goierriko Eremu Funtzionalan bi errealitate bereizten direla ondorio askotarako: Oria harana eta Urola Garaia. Bakoitzak bere eskualdeko garapen-agentziak, bere “industrialdeak”, bere turismo-agentziak eta beste erakunde eta entitate independenteak ditu eta hori ere kontuan hartu beharreko alderdia da.

Are gehiago, aurreko taulak erakusten du Zegama udalerrinari 196 etxebizitzako hazkunde maximoa esleitu zaiola eta Zaldibiari, aldiz, antzeko etxebizitza-parkea edo zerbait handiagoa izan arren, haren kuantifikazio maximo erdia esleitu zaiola (97

Antzeko zerbait gertatzen Alzaga eta Gaintzaren kasuan. Lehenengoari 36 etxebizitzako hazkunde maximoa esleitu zaio eta, bigarrenari, aldiz, etxebizitza-parke pixka bat handiagoa izan arren, laurdena baino gutxiago esleitu zaio (8).

Horri guztiari gehitu behar zaio Estandaren korridorarako proposatzen den guztiak, hala badagokio, ez lukeela lotura zuzenik izan behar hura osatzen duten udalerrien biztanle-kopuruarekin eta azken urteotako dinamikarekin: Ormaiztegi, Gabiria eta Ezkio-Itsaso.

Esku artean dugun testuinguruan dugun egoerari eta proposatu beharreko soluzioei buruzko hausnarketa sakona egiteko premia erakusten du horrek, prozesuaren lehen fase batean erantzuna emateko behar diren gakoak aurkeztuz. Aurreko taularen arabera, etxebizitza-parkerako proposatutako hazkunde maximoa 6.016 etxebizitzakoa da Eremu Funtzional osorako eta 8 urteko epemugarako, lehendik zeuden etxebizitzen % 18.

LPP zehazteko orduan beharrezkoa izango da kontu hori eztabaidatzea eta planerako behar den epemugari lotzea. Testuinguru horretan, kontuan hartuko da, halaber, hala badagokio proposatu beharreko balizko hazkunde selektiboa, jakinda ez direla gai honi buruz indarrean dagoen LPParen aurreikuspenak gauzatu.

LAGetatik ateratzen den 8 urteko epemugarako etxebizitza berrien kuantifikazio global maximoa, jarraipen-memorian jaso den bezala, 6.016 etxebizitzakoa da. Eskaintza hori, a priori, eskasa dela uste da, baldin eta lurraldea berrorekatzearen aldeko apustua egiten bada, bai lurralde barruan eta bai Gipuzkoan, barnealdearen eta kostaldearen artean, klima-aldaketaren arazoak itsasertzari epe luzera eragiten badio gerta daitekeena. Hori berrikuspen-prozesuan baloratu beharko da, eta kontuan hartzen diren udal-proiektuekin eta agertokiekin alderatu.

Berrikuspenaren esparruan, ekonomia-jardueretarako lurzoruen lurralde-finkapeneko eredia LAGetara eta sortzen diren agertoki berrietara egokituko da, bereziki, zaharkitutako edo desagertutako industria handiek okupatzen zituzten lurzoruak lehengoratzeko esku-hartze publikoaren ondorioz: Patricio Echeverria, Arcelor Zumarragan, Bilore Zaldibian, Etxezarreta paper-fabrika...

Garatu beharreko estrategiek, besteak beste, jakineko helburu bereziak izango dituzte, esaterako, "Beasain-Ordizia-Lazkao erpina" deiturikoa, Ordizian eta Beasainen proposatu beharreko trenbide-trazadura berria, Oianguko garapenaren irismena eta Lazkaotik izango duen irisgarritasuna, Arcelorren eremurako Zumarragan, Urretxun eta Legazpin aurreikusi beharreko garapena, Estandako korridoreak izango duen egitekoa eta Goierriari interesatzen zaion xedea ETSBren Ezkio-Itsasoko trenbide-plataformaren erabilerari eta xedeari dagokienez, Iruñearekin eta egungo aldirietako trenbide-sarearekin izan ditzakeen loturak barne.

Berrikuspenaren esparruan txertatuko dira, Eremu Funtzionalaren eskalara egokitutako zehaztapenekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Gipuzkoako azpiegitura berdea eta LAGetan aurreikusitakoa. Egindako azterketaren ondorioz, Goierriren nortasuna indartuko duen Eremu Funtzionalako eraztun berde bat eratzeko aukera ikusi da.

LPPren proposamena indarrean dagoen Gipuzkoako Hondakinen Planera egokituko da, eta Sasietako zabortegeari eta Troia inguruneari balioa emateko ahalegina egingo da.

Halaber, Eremu Funtzionalak parke eolikoren bat edo energia berriztagarriak instalatzeko eskaintzen dituen aukerak aztertzea planteatzen da, hala nola, Urretxuko udalerrria Irimoren hegoaldeko hegalean, Santa Barbaratik gertu, lantzen ari den ekimena.

Mugikortasun ez-motordunaren arloko neurriak txertatuko dira, bai Gipuzkoako bizikleta-bideen LAPean (eta aribidean dagoen berrikuspen-prozesuan) xedatutakoa gehituz, bai hiriguneen arteko lotura seguruak bermatuko dituzten oinezkoentzako ibilbideak antolatuz. Urretxu eta Legazpi arteko edo Beasain, Ordizia eta Itsasondo arteko loturek agerian uzten dute horrelako neurriak hartzeko interesa. Lotura horiek, Goierriko Eremu Funtzionala ez ezik, Eremu Funtzional mugakideak ere izango dituzte xede. Horren adibide ona da Azkoitia-Urretxu/Zumarraga lotura.

Horretarako, LPPren epemuga, gutxienez, 2040. urtean (LAGen epemuga bera) kokatzea proposatzen da, baina 2050. urtera arte ere luza daiteke. Hori prozesuan zehar finkatuko da.

2040. eta 2050. urteetako epemugetarako gauza ezezagun asko ikusten dira, baina aipatutako estrategia, jarraibide eta plan guztiek erronkak identifikatzeko eta soluzioak bideratzeko aukera ematen dute.

Goierriko Eremu Funtzionala ezagutzeak eta administrazioarekin, udalerriekin, herritarrekin eta lurraldeko eragileekin izango diren harreman berrien bidez sakondu daitekeen guztiak aukera emango dute ahalik eta LPP onena, Goierriko etorkizuneko belaunaldiak izango dutena, ahalbidetzeko behar diren estrategiak eta gidalerroak jakineko lurralde batean aplikatzeko.

Lehen adierazi den bezala, Plan horrek LAG berrien azpiegitura berdea eta urdina jaso beharko ditu eta parekorik ez duen lurraldea babestu eta baliozkotu beharko du. Aldi berean, belaunaldi horiei leku horretan behar duten habitata aurkitzeko aukera eman behar die, bizigarritasun- eta irisgarritasun-baldintza egokiekin eta enplegurako, aisiarako, kulturarako eta osasunbiderako sarbidearekin.

Horretarako, ingurumenarekiko konpromisoaren eta klima-aldaketaren erronkaren aurrean kontuan izan beharreko agertokia ebaluatu beharko da.

Eta erantzun justifikatua eta egokia eman beharko zaio erronka demografikoari, jaiotza-tasaren beharakadaren, zahartzeren eta bizi-luzetasunaren gorakadaren aurrean hartu beharreko erabaki politikoak eta migrazio-arloan hartu beharreko neurriak tarteko.

Horren guztiaren ondorioz aterako da bizitegi-kokalekuetarako eta ekonomia-jarduera eta ekipamenduen kokalekuetarako aukeratu beharreko lurralde-eredua eta komunikazio- eta zerbitzu-azpiegiturak ezartzeko eta ingurune fisikoaren antolamendua erregulatzeko eskaria. Horretarako, oreka egokia lortu beharko da eta garapen jasagarria ahalbidetu, hiri-hazkundearen perimetroek eragiten duten hedadura minimizatuz, hiria berroneratzen saiatuz eta leku jakin batzuk birnaturalizatuz.

Oso erronka esanguratsuak dira, aipatutako epemugarako landu beharko direnak, LPPean txertatu beharko diren beste erronka batzuen kalterik gabe, esaterako, berdintasuna, genero-arloko berdintasuna, segurtasuna, energia-eraginkortasuna, hizkuntza-ikuspegia, etab. Eta aurrerago aipatuko dugun beste bat: LPP lau urte baino lehen behin betiko onartzea.

Nolanahi ere, egiten den proposamenak LAGen zehaztapenei erantzungo die, bereziki etxebizitzak eta ekonomia-jardueretarako lurzoru kuantifikatzeari dagokionez. Prozesuan aintzat hartzen diren egoerei ere erantzungo die, EUSTATEk egiten dituen azterlan, dokumentu eta agertokiekin eta erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategiarekin koordinatuta.

Horren guztiaren arabera:

- Biztanleriaren proiektzioa 16 urteko epemugan (2040ko epemuga) 75.000 biztanle ingurukoa izango dela kalkulatu da. Beste agertoki batzuk ere kontuan har litezke gaiari buruz eztabaidatzeko.

2050. urtera arte luzatuz gero, 77.500 biztanlera ere hurbil liteke, epemuga urrunago batek eragin dezakeen ziurgabetasunaren kalterik gabe.

- Etxebizitzen batez besteko tamainak behera egiten jarraituko duela aurreikus liteke, lehengo baino erritmo txikiagoan bada ere. Izan ere, bizitokien eskaria biztanleriaren balizko hazkundearekin ez ezik, behar bezala haztatu beharko den dinamika horrekin lotzera ere behartzen du horrek.
- Biztanleen bizi-itxaropena handitzea, biztanleak zaharrago izatea eta ikusitako migrazio-mugimenduak direla eta, neurri egokiak hartu beharko dira.
- Egungo etxebizitza-parkea berri eta egokitu beharko da, etxebizitzen eta ostatuen batez besteko tamaina murriztuz. Eta ostatu-tipologia berriak ere beharko dira, bizigarritasun-dekretu berrian aurreikusi direnak bezalakoak.
- Hutsik dauden etxebizitzei eta bigarren bizitokiei dagokien parkearen bilakaera kontuan hartu beharko da, bai eta lehendik dauden etxebizitzak birgaitzea eta berritzea bultzatzea ere.

- Ekonomia-jardueretarako lurzoruaren eskaria kontuan hartu beharko da, teknologia berriak, ekonomia zirkularraren ingurukoak edo energia-eraginkortasuna hobetzekoak ezartzetik eratorritakoak barne, baita telelana ezartzeak ekar ditzakeen eraginak ere.
- Lurralde-egituraketaren arloan beharrezkoak diren soluzioak kontuan hartu beharko dira: ekipamenduak, komunikazio- eta zerbitzu-azpiegiturak...
- Prezioak eskaintzaren eta eskariaren arteko orekan eta behar den etxebizitza babestuen (soziala eta tasatua) kuantifikazioan duen eragina kontuan hartu beharko da, eta baita ekonomia-jardueretarako lurzoruaren arloko inbertsio publikoa ere.
- Eskariari erantzuteko dimentsionamenduan kontuan hartu beharreko zuzenketari erreparatu beharko zaio, Plana garatzeko epean izango diren kudeaketa-zailtasunak kontuan hartuta eta etea azkenean zehazten den epemugara doituta.

Horrez gain, nabarmentzekoak dira gako alderdi batzuk:

- Klima-aldaketaren aurreko erronka.

Aurre egin beharko zaie lehorteei, bero-boladei, uholdeei eta baso-suteei eragindako arriskuei.

- Lurralde-oreka lortzeko jarraitu beharreko ereduak.

Egindako diagnostikoan azaltzen den bezala, krisiak eta balizko paradigma-aldaketan mota desberdinak alde batera utzita, Eremu Funtzionalaren bilakaerak erantzun egin dio indarrek LPPearen 2009an aurreikusitako hazkunde demografikoari. Hala ere, hazkunde horrek ez die aurreikusitako lurralde-estrategiei erantzun eta, batez ere, Beasain, Ordizia eta Lazkao ingurunean gertatu da. Legazpi, Zumarraga eta Urretxuk osatutako multzoan, aldiz, biztanleriak behera egin du 2009az geroztik. Horrek aurreko egoera gehiago desorekatzen laguntzen du; gainera, aipatzekoa da XX. mende amaieran Legazpi, Zumarraga eta Urretxuk osatutako multzoak Beasain, Ordizia eta Lazkaok osatutakoak baino biztanle gehiago zituela. Xehetasun horrek eta kontu horren inguruan lortu nahi diren helburuek hartu beharreko erabakiak bideratzen lagunduko dute. Beraz, mendebaldean dauden kokaguneen hiri-berroneratzea eta garapena erraztuko dituzten neurriak bideratu beharko lirateke.

Atal honetan, aipamen berezia egin behar zaio 2009an onartutako LPPearen aurreikusitako biztanleriaren bilakaerari, onartutako hazkunde txikiko helburuak azken formulazio-fasean bakarrik planteatu zirela adieraziz. Ordura arte, aurreikuspenen arabera biztanleria nabarmen murriztuko zen. Itxaropen hori berriro iraultzean eta horren arabera planifikatzean asmatu izanak helburua betetzeko aukera eman du, Zumarraga eta Legazpi udalerrietan kontu horren inguruan ikusitakoaren kalterik gabe, kasu batean berrikusitako plangintza orokorrik gabe eta bestean egikaritu gabeko plangintzarekin.

- Aurreko testuinguruan, landa-guneak banan-banan aztertzea eta kontuan hartzea.

Erantzun beharreko premiak (biztanle-galera, etxebizitza sustatzea, enplegua, ekipamendu minimoak, mugikortasuna, etab.) dituzten tamaina txikiko kokaleku ugari daude lurraldean sakabanatuta, aztertu beharko direnak eta, hala badagokie, LPParen berrikuspenean proposatu beharko direnak.

Alzaga, Arama, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Mutiloa eta Zerain udalerrien hiriguneez gain, honako hauek ere nabarmendu behar dira: Ataungo nukleoak; Legazpiko Telleriarte, Brinkola eta Guriditegi; Lierni; Aztiria...

- LAGen zehaztapen egituratzaileak LPPea txertatzea.  
LPP berriak LAGetan aurreikusitako goiburuaren eta azpigoiburuaren sarea eratuko du. Sare horretan, Beasain eta Zumarragako goiburuak zehaztu dira Goierriako, eta Ormaiztegiko korridorearen integrazio funtzionaleko ardatza, Oria Garaia-Urola Garaia dikotomia gainditzeko aukera emango duena.

LAGen arabera, goiburu horietan ekipamendu-hornidura bideratuko da, *Eremu Funtzional osoan duen zeregina indartzeko, biztanleria hiriburuetara lekualdatzea saihestuz eta horietarako irisgarritasuna hobetuz*. Gainera, goiburuak hiriburuekin edo beste goiburu mugakide batzuekin lotzeko ahalegina egingo da garraio kolektiboko sistemen bidez, inguruko gune txikietarako irisgarritasun hobea sustatuz.

Eremu Funtzionaleko hiri-kokaguneen ezaugarriak kontuan hartuta, goiburu horiek azalera handiagoa dutela zehaztu behar da, Beasain, Ordizia eta Lazkaoko hiriguneeen multzoarekin nahiz Zumarraga, Urretxu eta Legazpiri dagokien multzoarekin eratzen diren hiri-continuumei erreparatuta, horien artean Goierri eskualde osoko biztanleen % 80 inguru hartzen baitute.

Halaber, hiri-garapeneko eta -berrikuntzako prozesuak espazio libreen eta beste zuzkidura batzuen arloan dauden defizitak konpontzera bideratuko dira, eta garai batean errepide-sarean zeuden baina saihezbideak martxan jartzearen ondorioz funtzionaltasuna galdu duten tartek hiri-bide bihurtzea bultzatuko da.

Halaber, lehentasuna emango zaio hirigunek trinkotzeari eta abandonatuta edo gutxiegi erabilia dauden industria-eremuei lurzoru berriak kolonizatzearen alternatiba gisa.

Horrenbestez, hiri-berroneratzeko eremuak identifikatzeko ahalegina egingo da, LAGak aplikatzeko arauetako 11. artikuluan xedatutakoaren arabera hiri-hazkunde berriak aurreikustearen kalterik gabe.

Halaber, bereziki hartuko dira kontuan ekonomia-jardueretarako eta etxebizitzetarako lurzoruaren kuantifikazioaren arloan aplikatu beharreko zehaztapenak.

Azpiegitura berdea ere sartuko da eta, bereziki, Gipuzkoako azpiegitura berdea, kontuan hartuta gai horren inguruan izapidetzen ari den Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako dokumentutik ateratzen den guztia.

LPPak, bestalde, Eremu Funtzionalak dituen espazio natural bereziak jasoko ditu, gaur egun indarrean dagoenak jasota dituen bezala. Bi parke naturaletako kontserbazio bereziko eremuei buruz ari gara, Aizkorri-Aratz parke naturalekoari, Otaño eta Aztiriako azalerak barne, eta Aralarrekoari, Eremu Funtzionalaren hego-mendebaldean eta ekialdean kokatutakoak, hurrenez hurren, eta baita beste eremu batzuei ere, esaterako, Murumendi, Samiño-Izaspi, Gorostiaga... LAGen proposamena ere jasoko du, hain zuzen ere, bi parke haiek Lizarrusti, Etzegarate eta Otzaurte arteko korridore baten bidez lotzeko proposamena.

### III.- Prospektiba: 2040rako (edo 2050) agertoki posibleetara hurbilketa.

Lurralde Plan Partzialaren berrikuspenari buruzko eztabaida irekitzeko balio behar duten Goierriko Eremu Funtzionalaren egoerara eta egungo egoeraren lehen diagnostikora hurbiltzeko dokumentu honetan, eztabaida hori bideratzeko, aurrerako begirada bat nahitaezkoa zela pentsatu da. Hori da atal honen xedea.

Etorkizuna beti izan da zalantzakoa, gaur egun, agian, are zalantzakoa bada ere, gero eta eraldaketa ugariagoak eta azkarragoak gertatzen ari direla kontuan hartuta eta erabaki askoren ondorioz bata bestearen atzetik gertatzen diren ondorioak kontuan hartuta, erabaki horiek urruti hartzen badira ere. Horregatik, gaur egun beharrezkoagoa da prospekzio-lana egitea eta geure erabakiak hartzea, beste interes batzuk dituztenek hartzea saihestuz.

Testuinguru horretan, lehenik eta behin, gehiengoaren adostasuna lurralde-plangintzaren tresna begirada horrekin erabiltzeko aukeraren inguruan dagoela esan behar da. Hori ikusi ahal izan da Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Lurralde Historikoko Ordezkaritzak sustatuta une honetan Gipuzkoako hirigintzari buruz egiten ari diren hausnarketa-jardunaldietan, besteak beste, Joseba Larzabal arkitektoaren esku-hartzean, gaiari buruzko hainbat galderari erantzun dionean.

Oinarri horren gainean, gizarteari dagokio, eta esku artean dugun kasuan goierritarrei, etorkizun hurbil horretarako (2040 edo 2050) helburuak adostea, bai eta etorkizun urrunago baterako ere. Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspenak tresna egokia izan behar du horretarako. Horregatik, bigarrenik, adostasun zabala lortu behar da, eta horregatik da garrantzitsua jarraian hasiko den prozesua. Nabarmentzekoa da Goierriko LPPean proposatzen diren soluzioak aurrerantzean jarraitu beharreko gida izango direla eta horiek egikaritzearen ondorioz etorriko dela ondorengo belaunaldiei utziko diegun lurraldea. Aldi berean, jakitun izan behar dugu egiten ez diren proposamenek ate jakin batzuk itxiko dizkigutela. Honenbestez, oreka aurkitu behar da. Horretarako, egungo egoeran, besteak beste, klima-aldaketari aurre egiteko erronkaren aurrean gaude, eta gure gizarteak erronka horri erantzungo dio jasangarritasunaren printzipioa eta trantsizio energetikoaren helburua proposatuz. Halaber, "zibilizazio-krisia" aipatu da eta paradigma-aldaketa baten premia planteatzen da; eta mutur batean, beharpena bideratutako estrategiak eta proposamenak egiten dira.

Testuinguru horretan, Goierrik erabaki behar du, beste behin ere, zer aldetara begiratu nahi duen, eta ahalik eta adostasun handiena lortu behar du norabide eta noranzkoren batean. Plana, berez, ez da berme bat izango, kudeatzea eta egikaritzea eskatzen duelako. Baina ezinbesteko tresna izango da aukeratutako orientazioa gauzatu ahal izateko, horretarako gida izateko eta beste administrazio batzuen aurrean justifikazio gisa aurkezteko, bereziki inbertsioak egiteko konpromisoa hartu behar dutenen aurrean.

Plana, bestalde, lurraldean ikuspegi guztietarako erantzuna izango duen tresna izango da eta, hortik, askotariko sinergiak sortuko dira.

Horretarako, hurbilketa bat egin da Goierriko lurraldearen gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-egoerara, biztanleria bereziki kontuan hartuta lurraldeko erreferentziazko elementu gisa. Hori horrela da Planaren oinarritzko helburua gizarte-auziari erantzutea izan behar duela ulertzen delako eta, testuinguru horretan, askatasun- eta berdintasun-baldintza onenak ahalbidetu behar direla, ekonomia- eta ingurumen-auziak ere modu paraleloan eta integratuan konpontzea ezinbestekoa izatearen kalterik gabe. Testuinguru horretan eta une honetan, erronka demografikoa da Goierriren eta bere ingurune hurbilaren erronka handienetako bat, Gipuzkoa, Euskadi, Espainia eta EBrena, alegia.

Nabaritutako egoeraren aurrean, kanpoko migrazioa hartzeaz gain, datozen urteetan barneko migrazio-saldo negatiboak alderantzizkatzea ere bideratu beharko litzateke. Horretarako, hainbat arrazoi medio, Eremu Funtzionaletik kanpo dauden Euskadiko beste herri batzuetara bizitzera joan diren Goierriko biztanleak itzultzeko neurriak hartu behar dira.

Testuinguru horretan, Goierriko biztanleriaren LPP honen epemugarako (2040. urtea) prospekzio-azterketatik ateratzen den kopurua, 2002-22ko hazkunde-erritmoari eutsiz gero (urtarrilaren 1eko datu ofizialak), 74.600 biztanle ingurukoa da (% 0,34ko hazkunde-tasa urteko batezbestekoan), eta 2022ko abenduaren 31ko Erroldaren Berrikuspeneko datu ez-ofiziala kontuan hartzen bada, biztanle-kopurua 75.400 ingurukoa da ((% 0,37ko hazkunde-tasa urteko batezbestekoan). Datu horien atzean kanpo-migrazioaren arrastoa dago, hau da, aipatutako azkena bezalako beste neurri batzuen kalterik gabe, azken horrek eragina izango duela Goierriko biztanleriaren hazkundera, mende honetan zehar egin duen bezala, biztanleriaren zahartze estrukturala, saldo natural negatiboak eta barne-migrazioen ondoriozko galerak arinduz. Horren arabera, lurralde honek eskaintzen dituen aukeren eta biztanleria hartzeko edo erakartzeko duen gaitasunaren ondoriozko ikuspegi demografiko baikorra kontuan hartzen dela eta, Goierriko udalerrietan enplegu-, etxebizitza-, zerbitzu- eta zuzkidura-eskaintza finkatu eta hobetuz gero, are eta baikorragoa izan litekeela. Alderdi horrek, seguruenik, eragina izango luke Euskadiko beste herri batzuetara joaten direnen biztanle-galera hori moteltzeko orduan. Seme-alabak hazi eta mantentzeko Eusko Jaurlaritzak eman berri dituen dirulaguntzak neurri itxaropentsuak dira gaur egungo jaiotza-tasak hobetu ahal izateko, lehen aipatutako erronka demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren esparruan sortutako beste neurri batzuk bezala, esaterako, prestakuntza-arloko politiketara dagozkienak.



Goierriko ingurumen kalitateak, irisgarritasun-baldintzek eta zuzkidurek (implementatzeko premiaren kalterik gabe) ere, aipatutako etorkizuna baikorra, arrazoizkoa eta posiblea izaten lagundu dezakete. Gainera, hiri-kokaguneak hartzeko lurzoru egokia izateak, indarreko LPParen testuinguruan kontuan hartu denak, aukera hori errazten du.

Bestalde, Eustatek Euskadirako egindako proiektzioak (2021-36) zifra horietara hurbiltzen dira. Erakunde horren arabera, urteko batez besteko hazkunde-tasa % 0,24koa izango da, baina erritmo desberdina izango du: lehenengo bost urteetan biztanleria % 0,14 bakarrik haziko da batez beste, eta 2021 eta 2022 artean (aurreikuspen hori gauzatu egin da Goierri eta, aldi berean, biztanleriak gora egin du), baina 2026tik aurrera, urteko hazkunde-tasa % 0,30 ingurukoa izango litzateke. Horrek esan nahi du eremu funtzionaleko biztanleria 73.400 eta 74.000 biztanle arteko kopurura iritsiko litzatekeela LPP honen epemugan, 2022ko urtarrilaren 1eko datu ofizialak edo 2022ko abenduaren 31ko datu ez-ofizialak hartzearen baitan. Eustaten goranzko aurreikuspen horren arrazoia, berriz ere, migrazio-saldoaren portaera ona da, saldo naturala edo begetatiboa negatiboa izango litzatekeelako aldi osoan. Beste faktore batzuek ere lagunduko lukete biztanleria hazten, hala nola, Gipuzkoan emakume bakoitzeko 1,5 seme-alabaraino haztea aurreikusten den ugalkortasun-adierazleak; bizi-itxaropenak, 2035ean jaiotzen direnentzat 84,2 urtekoa izango litzatekeena gizonen kasuan eta 89,1ekoa emakumeen kasuan, Europako handienetakoa.

Hala ere, EINen Euskadirako prospektiba aplikatzea ez da hain baikorra, izan ere, urteko batez besteko % 0,128ko hazkunde-tasarekin, biztanle-kopurua 71.650 (2022ko urtarrilaren 1eko datu ofiziala kontuan hartuta) eta 72.050 artekoa (2022ko abenduaren 31ko datu ez-ofiziala kontuan hartuta) artekoa izango litzateke Plan honen epemugan. Datu hori estatistika-erakunde horrek ezartzen dituen parametroen etorkizuneko portaeraren hipotesitik ateratzen da. Hipotesi horretan, biztanleriaren bizi-itxaropenak gora egiten jarraituko du (83,9 urte gizonentzat eta 88,3 emakumeentzat); emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopuru 1,19tik 1,27ra igoko da; zahartutako biztanleria-egiturak berak eragindako heriotzen gorakada progresibo eta etengabea jaiotza-kopurua baino handiagoa izango da beti eta, horren ondorioz, etengabeko saldo begetatibo negatiboa aterako litzateke (zahartze-prozesuak areagotzen jarraituko du eta, horrekin batera, baita mendekotasun-tasak ere); migrazio-saldo garbia positiboa izango dela kalkulatu da, baina gero eta txikiagoa. Horren ondorioz, 2040ko epemugarako, 71.650 eta 75.400 biztanle arteko urkila kalkulatu da, edozein kasutan egungoa baino kopuru handiagoa (70.000 biztanle ingurukoa).

Halaber, desazkundearen bidea hautatuz gero, kontuan har litezke biztanleria handitu eta kontsumoa txikitzeko etorkizuna edo, bestalde, biztanleriak behera egiteko etorkizuna. Bigarren egoera hori hautatuz gero, aukeratu beharreko soluzioek asko bizitako eta zahartutako gizarte baten premiei erreparatu beharko liekete, gizarte horrek nekez aurkituko lukeelako soluzioa bere premiei erantzungo dien biztanleria aktiborik gabe. Hori dela eta, horrelako agertoki bat baztertzeko eta, aldi berean, goierriarren premiei erantzungo dieten soluzioak sustatu behar direla uste da. Ez dago, bestalde, Goierriren etorkizuna nahitaez hori izango dela erakusten duen ebidentziarik eta, hala gertatuko balitz, horrelako agertoki bat kontuan hartu eta horri aurre egiteko politika publiko egokiak aurreikusi beharko liriateke.

Beste muturrean, EUSTATEk aipatutako prospektibaren ildotik, hau da, epe luzeagora hazkunde demografikoa handiagoa izan daitekeela aurreikusiz gero eta, edozein kasutan, munduko biztanleriaren hazkundera, NBEk proiektatutako agertoki probableenaren arabera, 2080. urte inguruan 10.410 milioi pertsona inguruan geldituko dela adieraziz, gaur egungo 8 mila milioiren aurrean, estrategikoki aurreikus liteke 2040. urterako biztanle gehiagoko agertokia Goierriko, baldin eta horrekin, Goierriren etorkizunerako oinarri sendoak ezar daitezkeela uste bada. Euskal Autonomi Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren funtzionaltasunari buruz hartu behar diren erabakien ondorioek ildo horretako aurreikuspenak justifika ditzakete. Halaber, aurreko hamarkadan biztanleriak bizileku gisa itsasertza barnealdea baino lehen aukeratzeko nolabaiteko joera ikusi bazen ere, Goierri aukeratzearen kaltetan, pandemiaren ondorioek eta itsas maila igotzearen ondoriozko arriskuak joera hori alderantzika dezakete. Mugimenduak nabaritzen dira noranzko eta norabide horretan. Horregatik, 80.000 biztanle inguruko agertokia kontuan hartzea ere justifika daiteke (gogoan izan behar da Goierri 72.000 biztanletik gora izan zituela 1981ean).

Testuinguru horretan, hasi beharreko eztabaidatik ateratzen denaren kalterik gabe, egokitzat jotzen da, a priori, 2040rako biztanleria 75.000 biztanle ingururaino hazteko moduko agertokia ezartzea, kontsumoa murriztea nahiz ekonomia zirkularra aintzat hartzen dituzten eta, aldi berean, epe luzeagora goierriarren bizi-proiektua arriskuan jarriko duen desazkunde esanguratsua saihestuko duen oreka ahalbidetuko duten soluzioak aukeratu, aurreikusten den bezala, 2080 inguruan munduko biztanleriak hazteari uzten dionerako. Badago denbora neurri egokiak hartzeko, baina premiazkoa da xedea aukeratzeko eta horren arabera bidea prestatzea.

Horrelako agertokia aukeratzeko zenbait aukera baztertzea saihestuko du eta, aldi berean, hainbat erritmo onartuko ditu proposamenak egikaritzeko orduan, Plana egikaritzea sortzen diren egoeretara egokituz. Honenbestez, agertoki posible gisa aurkezten da eta, aldi berean, Goierri ikusitako ezaugarri erantzuten dien agertoki zehur gisa. Ezaugarri horiek herritarrengan ikusi dira, sustraitze-zentzu handia, enpresa-ekimenerako joera esanguratsua eta garapen endogenorako gaitasun sendoa dituztelako, bai eta lurraldean ere, kokapen berriak hartzeko eta lehendik daudenak eraldatzeko gaitasuna duelako, ingurunearen babesarekiko eta balioztatzearekiko orekari eutsiz, lehendik duen oinarritzko azpiegitura sendoari esker.

Hirugarrenik, horrelako agertoki batek lurraldea eraldatzeko proposamenak eskatuko dituela adierazi behar da, bilakaera posible izan dadin. Horretarako, helburu zehatz eta bakarrei erantzuten dietenak ez ezik, askotariko sinergiak sortzen dituzten, ikuspegi guztiak modu orekatuan integratzen dituzten eta lurraldea birkalifikatzen laguntzen duten soluzioak bilatzen ahaleginduko da Plana. Beraz, lurzoruak deskontaminatzea, kultura-ondareari balioa ematea, ekipamendu-hornidura handiagoa eta egokiagoa izatea, uraren eta airearen kalitatea hobetzea eta abar bultzatu beharko ditu ekintzak.

Ahalik eta planik onena lortzeko, Goierriko herritarrek parte-hartzea planteatzen da. Horretarako, diagnostikorako lehen hurbilketako dokumentu hau planteatu da, plana egiteko prozesuan zehar osatzeko asmoz.

Ildo horretan, lehen fase honetan bilerak egin dira Goierrin bizi diren edo Goierrin jarduera duten askotariko eragile, enpresa, aditu eta herritarrekin. Bilera horiei esker, hemen azaltzen den guztia erabaki ahal izan da. Aurrerantzean harreman horiek sakontzeko ahalegina egingo da, LPParen berrikuspen-prozesua ezagutzeko eta bertan parte-hartze aktiboa izateko helburuarekin.

#### **IV.- LPP berrikustearen komenigarritasunaren eta aukeraren justifikazioa.**

Lehen adierazi den bezala, Goierriko Lurralde Plan Partzialaren berrikuspena egitearen komenigarritasuna eta aukera 2019ko LAGen zehaztapenetan, 2020ko azaroan egindako haren Jarraipeneko Memorian eta prozedurari hasiera emateko erabakian oinarritzen dira.


Prozesuan kontuan hartuko da lurraldean eragina duten politika sektorial guztiak eta gizarteratze- eta berdintasun-arloko, irisgarritasun unibertsal, genero, osasun, hizkuntza-inpaktu, nekazaritza-ebaluazio eta beste hainbat arlotako zeharkako politikak integratzea.

#### **V.- Plana izapidetzea eta herritarrek parte hartzeko prozesua.**

LPParen berrikuspenak herritarren parte-hartzea izango du. Horretarako, dagokion programa prestatu da eta programa horri lotuko gataizkio hura ezagutzeko. Programa hori LPParen berrikuspenerako aurreikusitako epeetara doitu da eta aukera emango du LPP berria hiru urte baino zerbait lehenago eskura izateko, eztabaidatzen eta erabakiak hartzen erabili beharreko denboraren ziurgabetasunaren kalterik gabe; helburu hori posibleztat jotzen da eta, aldi berean, erronka gehigarritzat. Prozesuan zehar, planaren epemuga zehaztu beharko da eta, arestian azaldutako guztiarekin bat etorritz, 2040. eta 2050. urteen artean kokatze proposatzen da.

Egin beharreko LPPari proiektu kolektiboa izatea dagokio, lan-prozesu jarraitu baten eta bateratzeko, hedatzeko, parte hartzeko eta erabakitzeko prozesu baten ondoriozkoa. Proiektu horretan, eta aipatutako epeetan, sentsibilitate desberdinei eta lehendik dagoen lurralde- eta koiuntura-egoera konplexuari erantzuteko ahalegina egin behar da, interes publikoarekiko mendekotasun-printzipioari erantzungo dion eta behar adinako adostasuna izango duen proposamen jasangarri batekin; bestalde, Plana kudeatzea eta egikaritzea, hau da, Planaren bideragarritasuna posible egingo duten mekanismoak proposatuko dira.

Donostia, 2023ko maiatzaren 25a.



Santiago Peñalba Garmendia  
Arkitekto Hirgilea



Iñigo Peñalba Arribas  
Arkitekto Doktorea

Helbidea: Portuetxe bidea, 63-3. A, Donostia-San Sebastián -PK 20018-

Telefonoa 943224208 - E-mail: [santi@emeseme.com](mailto:santi@emeseme.com)